

GARDENTASUN BETEBEHARRARI BURUZKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak: NANA/IFZ:

Honako hau ordezkatzuz: IFK:

Helbidea:

Honakoa adierazten dut diru-laguntza honen onuradun naizen aldetik:

Irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen onuradunen gardentasun betebeharrak arautzen ditu (2013ko 187. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa).

Foru dekretu horren 3. artikulua ezartzen duenez, diru-laguntzak jasotzen dituzten entitateek gardentasun betebeharra dute bi kasu hauetan:

- a) Emandako diru-laguntza 20.000 eurotik gorakoa denean.
- b) Emandako diru-laguntza entitate onuradunaren urteko negozio-zifraren edo aurrekontuaren %20tik gorakoa denean.

Kopuru horiek gainditzen ote diren kalkulatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako diru-laguntza guztien kopuruen batuketa egingen da.

Erreferentziako urteko negozio-zifra edo aurrekontua honako hauetako txikiena izanen da:

- a) *Aurreko urteko negozio-zifra edo aurrekontu gauzatua.*
- b) *Diru-laguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako aurrekontua edo negozio-zifra, halakorik baldin badago.*

Aipatu foru dekretuaren 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, honakoa ADIERAZTEN DUT:

- Ez dudala gardentasun betebeharrik** (ez dira gertatzen aipatutako foru dekretuaren 3. artikuluan aipatutakoak).
- Informazio hori bera aurkeztu nuela izeneko laguntzarako (.....k emana), eta, beraz, ez dela beharrezkoa berriz ematea, datuak aldatu ez direlako.
- Gardentasun betebeharra dudala**, eta, horrenbestez, 59/2013 Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako informazioa ematen dudala adierazpen honi erantsirik (entitatearen urteko azken kontuen kopia doa honekin batera).

.....(e)n,(e)koaren(e)an

Sinatua:

Kargua:

ADIERAZPEN-EGILEARENTZAKO ARGIBIDE JAKINGARRIAK:

1. Adierazpen hau eta kasuan-kasuan eranstean den informazioa **telematika bidez** aurkeztuko dira, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez, diru-laguntza kudeatzen duen administrazio-unitateari zuzendurik.
2. Adierazpen hau igortzeko epea hilabetekoa da diru-laguntza ematen duen ebazpena jakinarazten edo argitaratzen den egunetik hasita. Betebehar hori bete ezean, ez da ordainduko onetsitako diru-laguntza.
3. Entitate onuradunak ematen duen informazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atariko webgunean argitaratuko da. Informazio hori urtebetez egonen da eskura argitaratzen denetik. Epe hori pasatuta, hura argitaratzeko ardura duen unitateak ofizioz kenduko du, eta, hala egin ezean, entitate onuradunak eskatzen ahalko du kentzeko.